

URRUTIKO AZTERKETAK

Baldintzak

Eskolako irakasgai pendienteen azterketak atzerrian egitea Masterretako ikasleei soilik baimentzen zaie, norakoan dauden bitartean klaseak edo azterketak galdu ez ditzatela, eta titulazioen amaiera errazteko helburuz, baina murrizketa batzuk daude:

- Master Amaierako Lana bakarrik egiten ari ez izatea. Atzeritako egonaldia, irakasgaiez ikasturte osoa egiteko da (ala Amerika edota Asiarekiko programa bat da).
- Trukea egiten den titulazioko Irakasgaiak izan behar dira
- Bi azterketa bakarrik eskatu ahal izango dira gehienez egonaldian zehar.
- Azterketa, Eskolan baino egun berean eta ordu berean egingo da, **salbuespenik gabe**. Honi buruzko aldaketak adierazten dituzten eskaerak ez dira kontuan hartuko.
- Irakasgaiaren koordinatzailearen oniritzia.

Prozedura

Urrutiko azterketa egiteko, ikasleak hurrengo urratsak bete behar ditu:

- Irakasgaiaren irakasleari email bat bidaltzen dio, urrutiko azterketa egiteko baimena eskatuz.
- Norako zentroko koordinatzailearekin harremanetan jartzen da, azterketa zaintzeko prest dagoen jakiteko.
- Eskaera-orria outgoing.eib@ehu.eus helbidera bidaltzen du, behar bezala beteta.

Lehen lauhilerako eskaera-epea 2022ko abenduaren 9an bukatzen da, eta bigarrenerakoa, 2023ko apirilaren 28an. Luzaezinak. Beranduago heltzen diren eskaerak ez dira kontuan hartuko. Azterketa partzialen kasuan, eskaera 15 egun lehenago aurkeztu behar izango da. **Ez da onartuko data horretarako aurreko hiru pausoak betetzen ez dituen urrutiko azterketarik.**

Ikasleak irakasgaiaren irakaslearen zein norako unibertsitatearen baimena izan ondoren, eta behin Nazioarteko Harremanen Bulegoan behar bezala betetako inprimakia hartuta, irakasgaiaren koordinatzaileak eta Nazioarteko Harremanen zuzendariordeak sinatuko dute, eskaerari oniritzia emanez.

Azterketa posta elektronikoa bidez bidaliko zaio norako unibertsitateko pertsona arduradunari. Bidalketa, irakasgaiaren koordinatzaileak egin dezake zuzenki, edo Nazioarteko Harremanen Zuzendariordetzaren bidez egin daiteke. Bigarren kasu honetan, Zuzendariordetzan azterketa eta bere errealizaziorako instrukzioak eduki behar dira:

- 24 ordu lehenago, asteartetik larunbatera egiten diren azterketen kasuan
- Ostiraleko 12:00 orduak baino lehen, astelehenean egiten diren azterketen kasuan

Behin azterketa eginda, norako unibertsitateko Nazioarteko Harremanen arduradunak eskaneatutako kopia bat bidaliko du ingenieria.internacional@ehu.eus helbidera, eta jatorrizko dokumentua postaren bidez Eskolako helbidera.